



asis pastida

# *Zer dio Egunkariak?*

# Zer dio Egunkariak?

2012 ZUREKIN BAGOAZ AURRERA

Nafarroako Gobernua

Argitaratzailea: Nafarroako Eskola Liburutegiak. Hezkuntza Departamentua. Inprimategia: Castuera Industrias Gráficas S.A. L.G: NA-2457/2010

2010eko iraila

## PRENTSA ETXEAN IRAKURTZEA

### Editoriala

Ikerketa guztiak bat datoz familiaren jokaerak garrantzi handia duela haurrek eta nerabeek gero izanen duten irakurzaletasunean. Etxea ingurune erabakigarria da irakurtzeko ohitura hartu eta ikasketan arrakasta izateko.

Neska-mutilak ohitura daudenean etxean liburuak eta irakurgaiak elkarrekin konpartitzen, geroan agitez irakurle saiatuagoak izaten dira. Horregatik garrantzi handikoa da familiek informazioa eta orientabidea etxean hartzea zergatik, nola eta zer komeni den irakurtzea jakiteko.

Nerabeentzat, egia esan, makina bat testu izan daitezke interesgarriak informazioa, kultura eta are entretenibidea ekartzen badizkie. Argitalpen askok dituzte osagai horiek, baina horietatik gutxi izanen dira gure etxeetan hain ikusiak nola prentsa idatzia.

Etxean egunkaria irakurri eta ahotan hartzea mundura leiho bat zabaltzea bezala da. Bide ematen digu geure gizartea ezagutu, beste batzuekin konparatu, diferentzietan antz eman eta familian kontzientzia eta bizitzarako balio batzuk sortzeko.

Informazioa ezin barrendu ahala zurrustan dabilen mundu honetan, garrantzi handia du haurrek eta nerabeek informazio hori modu egoki, egia eta pluralean har dezaten. prentsa irakurtzea lagungarri izaten ahal zaie ikasleei gaurko gaien gainean gogoeta egin, informazioa hierarkizatu, eta hori aski ez, irakurmena ere hobetzeko.

Horregatik guztiagatik, oraingoan prentsak nerabeentzako irakurgai egokitzat duen balioa agertu nahi dugu, haren hurbiltasuna, haren garrantzia eta konpartitzeko aukera azpimarratuz.

### Zer egitura duen egunkari batek

Egunkari bat egitura argiko dokumentua da, informazioa modu ordenatu batean aurkezten duena. Prentsa irakurtzen hasten denak behar du ulertu behar du egitura hori, irakurle trebeagoa izateko, horrela errazago aurkituko baitu behar duen informazioa.

Egunkari guztiak antzera antolatzen dute informazioa: lehen plama batekin hasten dira, zeinean egun horretako berri deigarrienak azaltzen diren, eta gainerako berrien

titularrak ere, sumario batean; ondoren, barrerako orrialdeak heldu dira, atletan antolatutako (Nazioartekoa, Nazionala, Ekonomia, Iritzia, Berri Lokalak, Gizartea, Kirolak eta abar) eta, bukatzeko, azken plama zein jendarteko berrien bat heldu baita, tratamendu berezi batekin landua, eta bai, batzuetan, iritzi zutaberen bat ere.

Testu idatziak adinako garrantzia dute argazkiek, taulek, eskemek eta antzeko beste osagai grafikoek, berriaren edukia osatu eta aberastu egiten baitute.

### Gaztelaniako hedabideen estilo liburuak: adostu beharra

Gaztelaniaren gero eta erabiltzaile gutxiagok duda egiten du nork ematen dituen erabilera arauak; ez dira hiztegiak, ez gramatikak, ez ortografi liburuak; gaur egun estilo-liburuak dira espainola erabiltzeko benetako gidaliburuak, eta horietako gehienak hedabideenak dira, hau da, prentsaarenak, bai idatzi nola mintzatuarenak; (...) gaztelania ikasten hasten den edonork oso kontuan hartu behar ditu argitalpen horiek, haietan aurkituko baitu ikasketan aurrera egin ahala sortuko zaizkion dudak garbitzeko bidea (...) gaztelaniaren benetako maisuak hedabideak direla, haiek zabaltzen baituzte hizkuntzaren erabilera berriak.

Alberto Gómez Font  
[http://www.ucm.es/info/especulo/ele/g\\_font.html](http://www.ucm.es/info/especulo/ele/g_font.html)

El País-en estilo liburuak:  
[http://estudiantes.elpais.com/libroestilo/indice\\_estilos.htm](http://estudiantes.elpais.com/libroestilo/indice_estilos.htm)  
La voz de Galicia-ren estilo liburuak:  
<http://www.prensaescuela.es/web/archivos/lestivoz.pdf>

### Berria: prentsako testu oinarritzkoa

Berria da informazio-testu ohikoena. Berri mota eta generoa zein den diferentziak egoten dira baina berri gehientsuenetan bi alderdi garrantzizko aurkitzen dira, eta on da antz ematen ikastea:

- Berri batean honako sei galdera hauen erantzuna aurkitu behar litzateke: zer, nor, noiz, non, zergatik eta nola. Ingeleseko inizialengatik, kazetariak "5 W" (eta H 1) deitzen diete. Irizpide ona izan daiteke testu baten kalitatea neurtzeko.
- Buruz beheko piramide baten antzeko egitura bat: informaziorik behinena titularraren eta lehenbiziko lerroaldean aurkezten da; ondoren datuak osatuz joaten dira testuan aurrera egin ahala, orokorrean heheenera pasatuz, oinarritzko informaziotik detaileetara.

Edozein ikasle gauza da testu klase hau errazki ulertzeko, egitura argikoak direlako eta kazetaritzako estiloaren beste bi ezaugarriengatik: laburtasuna eta argitasuna. Berri baten mezua ulertzeko aski izaten da irakurtze gaitasun oinarritzko bat.

Hala ere, egunkarietan, berriak ez ezik, beste testu batzuk ere aurkitzen ditugu, korapilatuagoak (azalpenekoak, argudiozkoak, kontaerazkoak, eta abar) eta genero asko ere bai: artikulua, editoriala, erreportajeak... Aniztasun honek bide ematen dio ikasleari aurrera egin dezan gero eta zailagoko testuak irakurtzeko gaitasunean. Eta horrengatik arlo guztietako irakasleek maiz erabiltzen dituzte ikasgelan.

### Kazetaritzako generoak

Berriez gain, erreportajeak ere informazio testuak dira, gertatutakoaren kontatzea osoa eta objektiboa egiten baitute, kazetariaren iritzi pertsonalik nahastu gabe.

Iritzi-generoek, berriz, egilearen subjektibotasuna islatzen dute. Iritzikoak dira, kasu, editoriala (zuzendaritzaren edo egunkaria argitaratzen duen enpresaren iritzia agertzen du); zutabeak (kolaboratzaile batzuekin sinatutako testu laburrak); eta artikulua luzeagoak ere, batzuetan tribuna esaten zaaienak, jeneralean egunkariaren landarako pertsonak idatziak.

Informazioa eta iritzia bereizten jakitea garrantzizkoa da: testu batzuetan -informaziozkoetan- gertaera objektibo eta konprobatuak aurkitzea espero dugu; besteetan -iritzi-zoetan- ikuspuntu subjektiboak aurkitzen dira eta, beraz, hor azaltzen diren iritzia irakurlearen kritika pertsonalaren bahetik pasa behar dira. Norberaren iritzia eta prentsan irakurritakoak horrela etengabe erkatzea aberasgarria da guztientzat, baina batez ere irakurle nerabe batentzat.

Iritziaren eta informazioaren arteko muga ez da beti argia. Kazetaritzako zenbait generok, hala nola kronikak edo elkarrizketak, nahastu egiten dituzte informazio objektiboa eta kazetariaren edo elkarrizketatuaren irudipen subjektiboak. Bestalde, kazetaritzaren jarduna ez da beti egokia izaten eta askotan, tamalez, idazlearen iritzia edo egunkariaren joera ideologikoa iragazten dira informazio testuetan. Horregatik, informazioa leitzen denean ere iritzi testuekin adinako arreta kritikoa jarri behar da. Ikasi behar da testu ustez informatiboetan subjektibotasun ezkutuari eta iritziari antz ematen. Horretan ikasi ez duenak manipulazioaren arriskua dauka gainean. Komeni da, bestalde, egunkari bat baino gehiago irakurtzea, guztien ekarriekin nork bere irizpidea osatu eta ez sektarismoan erortzeko.

### Prentsa idatziaren etorkizuna

Prensaren etorkizuna momentu honetan ez dago argi. Batzuen ustez luze gabe paperezko egunkariak erabat aldatuko dira. Beste batzuen ustez, erabat itzaliko dira. Dena dela, oraingoz, paperezko prentsa Internetekoaren ondoan bizi da.

Prentsa digitalaren ekarpen nagusia da etengabe oraingotzen dela. Hartzaileak instanteko jakiten du zer gertatu den. Eta beste abantaila batzuk, oso garrantzizkoak, irakurle errazago iristen

dela nahi duen berrira, testuen nabigagarritasunari esker, eta elkar-eragina: denek, irakurle zein kazetari, edukiak sortu, iritzia eman eta komunikazio kate bat bereko osagai dira. Hartzaile pasiboaren eredu gaituztua dago. Orain dena norabide biko da hartzailearen eta hedabidearen artean, eta norabide-anitza erabiltzaile guztien artean. Egunkari asko sare sozialetan sartu dira eta kazetaritza mota hau sustatzen hasi dira.

Etorkizunean, kontrarioen arteko oreka bilatzeko borroka sumatzen da: eduki globalak eduki lokalak aurka, eduki generalistak eduki espezializatuen aurka; adituen analisisa eta gogoeta, autoritate irizpidea alegia, irakurle guztien arotzaren aurka eta unibertsalaren aurka.

Hedabideek, eta zehazkiago prentsa bezalako hedabide tradizionalak, ezin handiagoko erronka dute aurrean: garai

### Prentsa nola irakurtzen den

Testu-dukien banaketagatik, egunkari bat, testu literarioak ez bezala, zatika eta puskaka irakurtzen da. Nork bere intereseko berriak eta orrialdeak soilik irakurtzen ditu (batzuek diotenez, egunkari osoaren % 20 bat), orrialdeen hurrenkera ere segitu gabe askotan, behin egitura ezagutuz gero erraza baita dozer aurkitzea.

Denbora eta arreta beste irakurgaietan baino gutxiagokoak izaten dira. Prentsa-irakurleek, egunean 15 eta 45 minutu bitartean ematen diote irakurketari; gutxiago prentsa digitalaren kasuan (10 eta 30 minutu bitartean).

Prentsako testuak, horregatik, oso egokiak dira irakurle gaztearentzat, testu laburrak eta arreta tarte motzak nahiago izaten baititu.

berrietara eta komunikazio modu berrietara moldatzea. Baina erronka hori bera dugu guk ere, hezkuntza komunitateko kide garen pertsona guztiok.

### kosko.net

Kosko.net munduko egunkari nagusietara iristeko ataria da. Eguneroko argitalpen handi gehienek portadak jasotzen ditu eta handik klik eginda hedabide bakoitzaren webgunera sartzeko aukera ematen.

### Nafarroa da prentsa gehien irakurtzen den autonomi erkidegoa, Espainian

NAFARROA	% 61,5
ASTURIAS	% 59,4
EUSKADI	% 57,4
GALIZIA	% 52,1
BALEARRAK	% 48,6
KANTABRIA	% 47,1
ARAGOI	% 46,6
ERRIOXA	% 46,4
CATALUNYA	% 45,6
KANARIAK	% 40,5
ANDALUZIA	% 33,1
VALENTZIA	% 32,8
MURTZIA	% 31,8
EXTREMADURA	% 30,0
GAZTELA-MANTXA	% 27,5

Irakurtze indizea 2006an / El mundo

### Sarkozyk dohaineko egunkariak emanen dizkie 18 urteko gazteko Frantziari

Nicolas Sarkozy kazetariak bildu eta Prentsa salbatzeko hainbat neurri iragarri dizkie. Presidenteak hasiera eman dio prentsaurrekoari esanaz ez diela "adiskide maiteak" esan bere hitzak hasiteko, inork uste badu ere ez duela haien independentzia errespetatzen. Laguntzen artean bat nabarmentzen

da, oso deigarria delako: 18 urteko gazteek egunkari bat hautatu eta dohainik jasoko dute etxean 12 hilabetez. Zer helbururekin? Irakurtzen ohitu daitezten (paperean eta egunkariak, jakina).

[http://www.soiu.es/soiutu/2009/01/23/actualidad/1232718210\\_654567.html](http://www.soiu.es/soiutu/2009/01/23/actualidad/1232718210_654567.html)